

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 447/2021 Foru Agindua, uztailaren 13koa, 2021eko helbideratutako zerga sarreraren egutegia aldatzea ezartzen duena**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 23ko 692/2021 Foru Aginduaren bidez, 2021ean helbideratutako zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen egutegia eta zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia ezarri zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 8ko 5/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak kooperatiben zerga araubidean eta sozietateen gaineko zergan eragina duten zerga neurriak onesten ditu. Dekretu horretan ezartzen denez, luzatu egiten da sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epea, baldin eta haren sortzapena 2020ko abenduaren 31n izan bada. Zehazki, 2. artikulua bat apartatua ezartzen da sortzapena 2020ko abenduaren 31n izan duten sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak 2021eko uztailaren 1etik 2021eko uztailaren 30era bitartean aurkeztuko direla.

Azaldutakoari atxikiz, nahitaezkoa da eguneratzea 2021eko ekitaldiko diru sarrera fiskaletarako indarrean dagoen helbideratzeen egutegia, onetsi ondoren sortutako arau aldaketetara egokitzeke.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 23ko 692/2020 Foru Agindua aldatzea, ezarri zituena 2021ean helbideratutako zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen egutegia eta zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia.

| KONTZEPTUA | ALDIA | AITORPENA EGITEKO AZKEN EGUNA | HELBIDERATZEA ENTREGATZEKO EGUNA | ZERGADUNARI ZORDUNKETA EGITEKO BALIO DATA | ERAGIKETA EGUNA ETA AFAN EGINDAKO ORDAINKETAREN BALIOA | AGIRIAK ENTREGATZEKO EGUNA |
|--------------|---------|-------------------------------|----------------------------------|---|--|----------------------------|
| SOZINETATEAK | URTEKOA | 2021/07/30 | 2021/08/03 | 2021/08/04 | 2021/08/06 | 2021/08/10 |

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 13a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA